

BEHATXUL[📷]TIK

Juantxo EGAÑA



RICARDO DOLIWA. FONDO FAMILIA DOLIWA

RICARDO DOLIWA, ARGAZKILARI ALEMANIAR BAT DURANGALDEAN

Oso gaztetatik zuen Ricardo Doliwa alemaniarak (Berlin 1901, Durango 1976) argazkilaritzarekiko zaletasuna. 1940 -lan kontuak medio Durangon ostatu hartu zuen urtea- eta 1950 artean hainbat argazki egin zituen, bere ingurunea iruditzen hartuz: bizilagunak eta lursailak lantzen ziharduten baserritarrak; hondamendiak -1941eko otsailaren 15ean urakan-haizeek eragindakoak kasu-; erromeria eta prozesioak; eta baita II. Mundu Gerraren harira Durangon ziren soldadu alemaniarak ere. Edonora zihoala berekin zeraman argazki kamera eta, inguruko esanetan, Urkiola eta Saibigain mendia ziren bere lekuri kutunenak. Kaballosteko (Durango) garbitokian arropa garbitzen ari diren hainbat emakume ageri dira alboko irudian.